



JON MIRANDA

«Jendeari begiratu eta ez nintzen txiki sentitzen»

AITOR MENDIZULE BERTSOLARIA

2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean Maialen Lujanbiorekin buruz burukoa lehiatu ostean, bigarren sailkatu da irurarra: «Oso sentrazio onak izan nituen, oso eroso sentitu nintzen» // **4-5**



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 "ARCIMBOLDO. Las floras y la primavera"

Bi lagunentzako bina sarrera
2018-02-05era arte



**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

www.museobilbao.com/eu
BILBO

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **21**

2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24 - DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04
www.eltxuri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 SEGORE ETXE BERRI JATETXEA-LANDAETXEA

Bi lagunentzako otordua

www.segore.com
Mota guztietako ospakizunetarako;
ezkontzak, familia bazkariak...
943-58 09 76 - 610 460 751
Santa Maria auzoa - ALBIZTUR



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

‘Hitzartu’ aurkeztu dute

Hondakinen gatazkari konponbidea emateko egitasmoa da; berme batzordean eskualdeko kideak izango dira

I. Urkizu

Asteburuan aurkeztu dute *Hitzartu* foroa, hainbat sindikatu, gizarte eragile eta norbanakoren aurrean. Gipuzkoako hondakinen gatazkari konponbide adostu bat bilatzeko parte hartze prozesua izango du muinean, eta akordiora bidea berme guztiekin egin nahi dute sustatzaileek.

Horretarako, foro «irekia eta anitza» sortu nahi dutela azpi-



Gipuzkoan hondakinak kudeatzeko ereduak sortu duten gatazka konpontzeko sortu da foroa. ATARIA

marratu zuten aurkezpen ekitaldian, hiru irizpide markatuz.

Batetik, herritarren parte hartzea ezinbestekoa izango da *Hitzartu*ren jarduna aurrera eramateko; parte hartze prozesu bat izango da. Bigarrenik, PIGRUG (hondakinen kudeaketa plan integrala) 2017-2030 idaztea izango dute helburu, gizarte-kohesioa eta ingurumenarekiko errespetua eta Europako ingurumen araudia errespetatuz. Azkenik, *Hitzartu* hiri hondakinen kudeaketa hitzarmen bat lortzea izango du helbururik behinena.

Guztia «seriotasunez» garatze-ko, berme batzordea osatu dute, eta Garbiñe Biurrun tolosarra eta Bernardo Atxaga asteasuarra dira tartean. *Hitzartu* lanean hasiko da, 80.000 euroko finantziazioa eskuratzeko.



ENERGIA KONTSUMO BIDEAK BERRITU, IRAUTEKO

Tolosako Trianguloak hirugarrenez hartu zuen, joan den larunbatean, Energia Azoka; kontsumo bide jasangarrien plaza bilakatu zen karpa erraldoia, eta herritarrek beren zalantzak argitu ahal izan zituzten. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosako Udalak, Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutu Integratuak parte hartu zuten egitasmoan, energia jasangarriaren kontsumoa sustatu, eta horien inguruko informazio zuzena eskaintzen. Bi bisita gidatu egin zituzten, berotze sistemak, argiztapena nahiz ibilgailu elektrikoak ikusteko aukera eskainiz. Hori guztia kontatzen, berriz, Jokin Aldazabal Euskadi Irratiko Ekosfera saioko arduraduna aritu zen, aditu eta ikasleei elkarrizketak eginez. I. URKIZU



IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Amezketan herri erdian. Lursaila, bagera, garajea eta terrazarekin. 120 metro karratu inguru. Interesatuak deitu 617 60 78 14 edo 943 65 12 65 telefono zenbakietara.

Lan eskaintza

Kamioi gidaria. Esperientziadun kamioi gidaria behar dugu. C+E gida-maimenak eta CAP-a duena. Euskaraz jakitea baloratuko da. Interesak duenak deitu 603770224 zenbakira.



TOLOSALDEA BUS, PROTESTAN

Lan-baldintzak salatzeko eta soldata igoera eskatzeko elkarretaratzea egin zuten, joan den larunbatean, Tolosaldea Bus enpresako langileek. Azaldu zutenez, 2014az geroztik ari dira eskaera bera egiten, eta ez dute erantzunik jaso. Horrela jarraituz gero, urtarrilaren 8tik 10era greba iragarri dute. I. URKIZU



HIRU HAMARKADA MAHAIAN

Alegiako gaztetxeak 30. urteurrena ospatzeko hitzordua izan zuen, larunbatean, egun osoz. Ohitura onei eutsiz, hiru hamarkadaotan gaztetxeko kide izan direnak mahaiairen bueltan elkartu ziren bazkaltzera, eta parrandarekin jarraitzeko aukera izan zuten gero. J. ARTUTXA



ARGAZKIA, BAKERA BIDEAN

Tolosako Sarek argazki jendetsua atera zuen, Eguberriei begirako hitzorduetara herritarrak deitzeko; *Gu prest gaude, eta zu?* leloa baliatu zuten. Bi hitzordu proposatu zizkieten herriarrei: abenduaren 24an Tolosan izango dena, eta urtarrilaren 14an Bilbon izango dena. I. URKIZU



KIROLA, FESTA EGITEKO

Ostegunean hasi eta igandean biribildu zuten, Zizurkilen, urteroko Kirol Astea. Kirola eta festa uztartuz hainbat jarduera izan dituzte herrian, eta larunbat arratsaldea hartu zuen, frontoian, zumbatoiak. Haur eta gaztetxoengozamena sortu zuen hitzorduak. J. ARTUTXA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

I. Terraldillos / J. Miranda Irura

Astigarragako Ipintza sagardotegian eta Hernaniko bertso eskolakoekin batera ospatu zuen Aitor Mendiluzek (Andoain, 1975) Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko lorpena eta biharamunean, goizean goiz ATARIA irratiari egin zizkion lehenengo adierazpenak. Ez du bere burua txapeldunaren «ordezko» ikusten, sailkapenean bigarren baizik, «ez baitago Maialenen ordezkio izaterik».

Bertso eskolakoekin batera ospatu nahi izan zenuen igande gaua. Eskola horretako hiru lagun izan zarete finalean.

Taldean pasa genuen finalaren ondorena. Askotan esan izan dugu, hori izaten dela txapelketako gauza politenetako bat: taldea, harreman hori, elkarri bultzatzea egiteko gogo hori. Hori gabe, txapelketa askoz gogorragoa eta desatseginagoa izango zitekeen. Esfortzu handia egin behar izaten da, lana gogorra da eta babes horrek, besteen ilusioak, norbera hauspotzen du.

Juanjo Uriarekin gogoratu zineten agurrean Unai Agirre eta zu.

Bertsoarekiko maitasuna transmititu zigun guri eta beti umiltasunarekin. Eredü garrantzitsua dago hor, itzaleko langile nekaezin horietako bat da Juanjo. Guri ere egokitu zaigu lan hori egitea eta ondorengo belaunaldiei ere bai. Bertsoaren muina bizitzea, itzaleko lanaren beldurrik ez izatea, eta askotan, fokupetik kanpo dagoen lan horrekin gozatzen jakitea da gure bertso eskolaren, eta beste askoren sekretua.

«Horrelako emaitzek orain arte egindako bidea berresten dute»

AITOR MENDILUZE TXAPELDUNORDEA

Txapelketan aritu diren 43 bertsolarien arten, bi onenen artean sailkatu da Iruran bizi den andoaindarra. Finalaren biharamunean nekatuta baina pozik hitz egin du.



IBAILUQUE

Oholtza gainetik tentsio handiz bizitzen da finala?

Saio horrek maila batetik gorakoa izan behar du eta horri eutsi egin behar zaio. Horrek berak, taldea egitera bultzatzen zaitu. Egiten duzuna ez da zurea bakarrik, denona baizik. Eta elkar mimituta bakarrik ez, antolakuntzak, inguruak, medioek oso ondo zaindu gintuzten. Txapelketa honetan bereziki borobil atera dira gauzak. Aurten aipatzekoa eta eskertzekoa izan da ikus-entzuleen jarrera. Errespetuzkoa izan da. Gehiegizko euforia gabe, goxotasunez saioari eutsi diote. Antolakuntzakoek esan ziguten zeinen txukun eta zeinen jator jokatu zuen jendeak eta hori ere bada final baten parte garrantzitsu bat.

Gozatu al zenuen finalaz?

Bai. Beharbada, inoiz baino kontzienteago egiten ari ginenaz, bizitzen ari ginenaz, gertatzen ari zenaz. Oso sentsazio onak izan nituen, oso eroso sentitu nintzen. Mikrofonora inguratzen nintzenean, jendeari begiratu eta ez nintzen txiki sentitzen beste batzuetan bezala.

Erpinen txapela



Oholtzapetik Oihana Iguaran

Abisatuta geunden: «saio borobila eta bertso ertz-dunak», «eder eta idor», «gure buruaren kontra, gure munduaren alde». Hori zegoen jokoan igandean nolabait, postu-lehiatik harago: gure burutzat zer hartuko dugun eta nola, nahi dugun munduaren alde. Kontsentsu edo eztabaida horren

bila, 15.000 lagun BECen eta beste hainbat etxetik. Irundik seina-leak ematen zetorren Lujanbiok argi utzi zigun, bertsoak «puntuak baino punta / gehiago ditu».

Bertsotan egiteko 8 eredu, tonu eta kolore desberdin genituen oholtzan, entzuleon gozagarri; zortzi ahots, norbere kezka eta ikuspegia eraikitzeke prest. Lehen ordutik zutik jarri eta ohi den txalo zaparrada gurutzatuz iritsi ziren oholtzara, espektatiba altuen jakitun baina gainditzeko gogoz.

Eskualdetik jaso genuen egunezko poz handienetako bat, Aitor Mendiluzek hasi eta buka izugarritzko lana egin baitzuen. Sinpletasuna aldarrikatu zuen goizetik «hitzetatik nator ta / hitzetara noa», baina hitzetatik harago iri-

tsi zen sentipena utzi zigun «errua begietan»; ez zetozen bat hasierako agurra eta bukaerako egurra. Gozamen hutsa eta beteak izan zen.

Gainerako seiek ere eskaini zuten zerekin gozatu, norbere puntutik eta norbere puntei tiraka. Ez baita kasualitatea Sustrai Colinak zortziko txikiari ia derrigor eskatzen zaion umoreari zirrikitu bat zabaldu izana Estatu-terrorismoari aipamen bat egin eta hezurrei hitza emanez gure hezurak astintzeko. «Ardatzak periferian» bilatzeak dakarrena. Amets Arzallusek bere gezur txikiekin «egia transformatzera» jokatu zuen, ez ohiko distiran baina sekulako lanak utziz. Munduko gatazkei eskaintzen dien begiradatik gure mundua ulertzeko «ar-

mak» ematen dizkigula uste dut. Aitor Sarriegik, bere azken txapelketari sinadura bikaina utzi dio saioz saio eta goizeko kartzelan ere milaka euskaldunon esperientzia pertsonaletik abiatuta irakasle-geletako kortxorako mezua utzi zigun, bizitzari euskaratik emana: ezin dugula eskatu «guk egiten ez duguna».

Igorrek erakustaldi bana eman zigun goizeko zortziko zein hamarrek txikian eta puntukako saioan, elkarriketa biziarekin goia joz. Beñatek, aldiz, bakarkakotat agertu zuen ondoen bere begirada eta bete-lana gizartearen irakurketa bihurtu zuen, hausnarketarako hariak utziz. Unai Agirrek, eskatzen genion freskuraz gaindi, ahozkotasetatik mundua deskribatzeko duinta-

sun agertu zuen: «horko herria Alepo / lau etxe zutik kaleko / hildakoak ere lepo»... tatuatuta utzi zizkigun.

Espero genuena modu harri-garrian egin zuen Maialen Lujanbiok. Arzallusek ez zion alferrik abestu amaieran: «lehen ere justuna hau zan»; ibilbide bati zegokion aitortza ikusi genuen askok atzoko txapeldunarengan, erkin eta jarrai, ibilbide borobilenetik erpin bila jarraitzeagatik. Denon lagun imaginario bihurtu denak, ikusezina dena lagun hurko bilakatzen digu, edo bistaratu behintzat. Zorionez, BECen imajinatu genuena ikusten jarraituko dugu, begiak zabaltzean ere; hernaniarrak bakeaz abestu zuena moldatuz: «txapela ere ez da helduko / txapela joatea da».

Bai goizean, bai arratsaldean, azkeneko tokian kantatzea egokitu zitzaien.

Batez ere goizekoarekin nuen kezka. Duela zortzi urte ere azkena izatea egokitu zitzaidan, kartzelatik etortzerako jendea altxa eta bazkaltzera zihoan. Oso sentsazio arraroa izan nuen. Kezka pixka bat baneukan, baina ia zenbakia atera zutenean erabaki nuen, zortzigarren, baina berdin-berdin 25 bertso egin behar zirela. Balio izan zidan jarrera horrek. Positibotik hartzea erabaki nuen.

Luzitu zinen bakarkakoetan.

Goizean kartzelakoan azkena izateak, gai berarekin kantatzen duen zortzigarren bertsolaria eta Ametsen atzetik gainera. Garbi neukan beste zerbait egitera jo behar nuela. Bidea nahikoa azkar eta erraz etorri zitzaidan. Momentu egokia iruditu zitzaidan doinu berria plazaratzeko, plus bat eta sorpresa puntu bat ekarri zezakeela pentsatu nuen. Bertsoen exekuzioa txukuna izan zela iruditzen zait, gaia oso gertutik hartu nuen eta gainera istorio luze dramatiko bat egin gabe, sentsazio bat transmititzen saiatu nintzen, eta neurri batean, asmatu nuela uste dut. Konforme nago. Beste bietan ez nintzen disgustura geratu baina sentsazio ezberdinarekin bai.

Nola ikusi zenituen gainerako bertsolariak?

Beste bertsolarien kartzelarik ez nuen entzun, eta horrek desitxuratu dezake daukazun irudipena. Ikusten nuen Sustrai oso ondo: beretik eta kontzentratuta. Aitor ikusten nuen sufritzen, fisikoki ere ez zelako bere baldintza onenetan joan, baina era berean ikusten nuen gauza onak

egiten. Ikusten nuen Amets tira eta tira, lan eta lan. Unai distiratsu ikusi nuen, jendea irabaziz. Igor fin-fin beti ohi duen bezala, ohi duen bezain dotore. Beñat, ikusten nuen oso langile, beharbada berak nahiko lukeen distirarik gabe, baina oso bertso onak utziz, jendea lehertuko ez zutenak, baina kalitatez eta intensioz oso onak. Eta gero Maialen, gainetik, denon gainetik.

Nola hartu zenuen buruz burukora pasako zinela esan zutenean?

Ez nuen neure burua buruz burukoan ikusten, baina kanpora ere ez. Nahiz eta aurreko kabala guztiak hor egon, ez nuen neure burua hor irudikatzen, momentua iritsi arte behintzat. Nire izea esan zutenean, pentsatu nuen, 'ederra izango da, hau Maialenekin jokatzeara'.

Zer esan dezakezu txapeldu-naz?

Ikusten genuen nola ari zen egun osoan zehar. Bakarkakoa bete-betea egin zuen buruz burukoan. Maialen bertsotan ikaragarria da. Bi hitzetan mundu bat marrazteko gaitasuna du. Beste inork ez duen gaitasun bat du, ezkutuan zegoen ertz hori hartu, hari horri tira eta mataza eder bat egiteko. Horretan da bereziki aparta, badu begirada magiko bat, eta gero, ona da teknikoki edo diskurtsiboki.

Pasa zitzaizun burutik txapel-duna izateko aukera?

Ez nuen horretan pentsatzen. Buruz burukoan bertsotan egin behar zela eta lanera joan behar nuela pentsatu nuen: 'lehertzeko momentua da hau, oraintxe da momentua kale edo bale egiteko'. Gero emaitza oso gauza lausoa da eta momentu horretan ez



Igandeko finalean Mendiluze, Maialen Lujanbiorekin batera, buruz burukora pasa zen unea. GARI GARAIALDE

zitzaidan inporta. Zerbait uzten saiatu nintzen eta hortik tira nuen gehiago.

Asko aldatuko al dizu zure bizitza txapeldu-norde izateak?

Urte asko daramatzat, orain bat-batean, hainbeste aldatzeko. Horrelako emaitzek orain arte egin-dako bidea berresten dute. Ez zaituzte aldatzen, baina egin duzuna ez zela okerra adierazten dizute. Eta alde horretatik indartzen zaituzte gehiago. Ez zara hobia lehen baino, baina egiten ari zarenak beste errekonozimendu bat gehiago dauka. Ez naiz hobia izango, ez naiz plazetan gehiago ibiliko, baina nire bide horri beste oniritzi bat ematea da bigarren postua.

Igandean Igor Elortza eta Aitor

Sarriegik iragarri zuten txapelketak utziko dituztela. Mendiluzeren burutik pasatzen al da horrelakorik?

Gauza asko ateratzen dira, nekea, belaunaldi kontuak, errelebo kontuak... baina sentsazio oso pertsonalak ere bai. Nik ez dakit. Txapelketa oso gogorra da, final bat oso da gogorra, baina era berean oso da ederra. Onartzen dut, horrela esanda badirudi bekatua dela, baina niri gustatu egiten zait txapelketa. Nik ondo pasatzen dut, sufrিতта ere. Beti esaten dut, okerren guk pasatzen dugula baina ondoen ere bai. Zaila egiten zait irudikatzea lau urte barru joan nahiko ez dudarik. Momentua iristen denean, beharbada beste hiru aldiz joan-

go naiz, edo beharbada behin ere ez gehiago. Ikusiko dugu. Oraingoz ez dut uko egiteko arrazoirik ikusten.

Hemendik lau urtera, beste kolore bat izango al du finalak?

Derrigor, dagoeneko bi bertsolarik ez direla egongo esan dutelako. Besteok ez dakit egongo garen edo ez. Ez dakit parte hartuko dugun, eta parte hartuta ere horra iritsiko garen. Lau urte barru beste belaunaldi bat egongo da finalean, beste bertsokera batzuk egongo dira, gure bertsokera ere ez da berdina izango, ondo bidean, oraingoaren garapena beharko luke; orduan bai, derri gorrez eta zorionez, esango nuke, kolore ezberdin bat izango du finalak.



Kale Berria, 46 behe. 20150 Villabona
Tf: 943 690 297 - 607 445 484
www.aburuza.com - aburuza@aburuza.com

AZKEN ETXEBIZITZAK



1ºA : 156.000 € + BEZ
1ºB : 159.000 € + BEZ

AMEZKETA - San Bartolome, 35

2 eta 3 gelako etxebizitza, garaje itxia, trastelekua.



2 gela: 172.000 €tik
3 gela: 200.000 €tik

ANOETA - Itur kalea, 1

VPO etxebizitzak



155.288,86 € + BEZ
aurea

ORDIZIA - Filipinak kalea, 34-36



Figurak eta piezak zaharkituta daudela salatu dute hainbat herritarrek; Gernikako Arbolako jaiotza 1994an jarri zuten, lehenengoz. I. URKIZU

Internet azken polemika tolosarraren lekuko izan da, egunotan: hainbat herritarrek plataforma bat sortu dute, 2018an Gernikako Arbolako jaiotza aldatzeko eskatuz.

Sartu dira barrena

Itzea Urkizu Arsuaga

Ia inork espero gabe, bat-batean, ika-mika piztu da, Tolosan, Gernikako Arbolako jaiotza dela-eta. Antza, hainbat herritar ez daude gustura udalak urtero lorategi horietan jartzen duen jaiotzarekin eta, 2018ko Eguberriei begira, sinadura bilketa abiarazi dute interneten, jaiotza berria eskatzeko.

Facebook-eko orrialde batean piztu zen eztabaida, duela egun batzuk. Sare sozial horretan bada *Tolosarras* izeneko komunitate bat eta, batez ere, tolosarren iritzi eta kritikak biltzeko plaza bilakatu da. Jarduera handiko gunea izaki, eguraldiari, festari nahiz aktualitateari lotutako albiste nahiz argazkiak zabaltzeko ohitura dute kideek, ia beti gazteleraz. Horrela, abenduaren 6an, Gernikako Arbolako

jaiotzari buruzko eztabaida zabaldu zen.

Besteak beste, jaiotza «zatar-keria hutsa» dela argitaratu zuen erabiltzaile batek, figuren argazkiak sareratuz. Iritziak sekulako soka ekarri zuen, eta asko jaiotza aldatzearen alde azaldu ziren, gaur egungoari kritika zorrotzak eginez: «Aspaldi jartzen zutena askoz ere politagoa zen»; «lardaskeriekin konpontzen saiatzen dira»; «Iritzi guztiak dira errespetagarriak, baina penagarria da, ez dago beste hitzik»; «Nire herriaz lotsa sentiarazten dit»; «Beldurgarria da, ezin du itsusiagoa izan»; «Hori artea al da?».

Ehunka iruzkin dira irakurgai eta, horien artean, badira zuzenean Olentzeroren figurari kritika egiteko idatzitakoak. Erabiltzaile batek, adibidez, Olentzeroren pertsonaia jaiotzan ez jartzeko aldarria idatzi zuen, ar-

gudiatuz, «egiazki Olentzero haurrak lapurtzen zituen pertsonaia zela». Kontrara, Olentzero tolosarra defendatu zuenik ere izan zen eztabaidan: «Tolosakoa oso erreala da eta benetako ikazkina dirudi; Olentzero ezin da galako jantziz atondu, telebistan ikusten dugun moduan».

TOLOSARREK TOLOSARRENTZAT

Tolosako Udalak 1994. urteaz geroztik jartzen du jaiotza hori, Gernikako Arbolako lorategietan. Iñaki Epelde, Amaia Biurrun eta Jose Luis Longaron artista tolosarrek egin zuten lana eta, orduz geroztik, «beharren arabera konponketak» egin dituzte, udalak azaldu duenez. Azken egunotan piztutako polemikaren harira, Olatz Peon alkateak azaldu du herritar horien iritzia kontuan hartuko dutela, eta baloratuko dutela nola bide-

ratu. Hala ere, artista horien lana errekonozitu nahi izan du alkateak: «Ikusi egin beharko da iritzi horien ondoren neurriak hartu behar diren edo ez. Gaur-gaurkoz, Tolosako Udalak balioan ja-

Tolosako Udalak 1994. urteaz geroztik jartzen du jaiotza hori, Gernikako Arbolako lorategietan

Herritar askok zalantzan jarri dute kristautasunari lotutako sinboloak jarri behar izatea

rri nahi du bere garaian artista horiek egin zuten lana, eta errekonozimendua eskaini nahi diegu».

Hain zuzen ere, sare sozialetako iritzi-truke horretan parte hartu nahi izan zuen Kristina

Martija tolosarrak. Egileetako baten senidea da, eta Gernikako Arbolako jaiotzaren sorreraraino egin nahi izan zuen atzera, gogora ekarriz, hastapenetatik polemika piztu duen gaia izan dela. Haren ustez, figurak oso baldintza txarrean daude, baina, balorazio horren ondotik, herritarren jarrerari jarri zion fokua: «Baliteke foro honetan errespetua, jarrera ona, sentsibiltatea eta fin-tasuna errekuiperatu nahia, ameskeria hutsa izatea. (...) Ez dut beste abendu bat gehiago jas-nahi, polemika zentzugabe honekin bueltaka».

Zurrumbilo horretatik, Gernikako Arbolako jaiotza aldatzeko eskaera Tolosarras komunitate-tik harago zabaldu, eta zenbait herritarrek sinadura bilketa bati ekin diote, *Change.org* atarian, 2018an jaiotza berri bat ezartzearen alde; 350 sinadura bildu dituzte jada. Bide beretik, izan da Zarauzko jaiotzaren argazkiak argitaratu dituenik ere, balizko eredu izan daitezen.

EZTABAIDA PARALELOAK

Jose Kruz Izulain lezoarrak 14 urte daramatza Gipuzkoako Belenzaleen Elkartearen eta, haren ustez, ez da jaiotza itsusirik: «Nik uste dut jaiotza itsusirik ez dela. Egiten duenaren gustuaren arabera izaten da bakoitza, baina uste dut errespetatu egin behar dela. Guretzat jaiotza guztiak politak dira». Grina artistikoaren bidetik iritsi zen, Izulain, elkar-tera, eta urte osoko lana izaten dute, batez ere, Eguberriei begira. Elkarteak, ordea, 300 bazkide inguru ditu gaur egun. Azaldu duenez, Gipuzkoako Belenzaleen Elkarteak ez du loturarik elizarekin, eta eskulanetan aritzeko afizioak elkartu dituen erretirodunak dira kide, batez ere. Donostiako Gipuzkoa plazako jaiotza prestatu eta mantentzeaz arduratzen dira, eta hainbat ikastaro ere antolatzen dituzte.

Tolosako Gernikako Arbolako jaiotzaren eztabaidari, ordea, beste zenbait adar ateratzen zaizkio, haren aldaketa galdegin dutenen aldarriarekin batera. Izan ere, sare sozialetako dantzan, asko izan dira erlijio kristauari hertsiki lotutako jaiotza bat jarri behar ote den zalantzan jarri dutenak; sinbolo horiek deuseztatze-ko prest leudeke herritar horiek.

Kontuak kontu eta iritziak iritzi, iristear diren Eguberriak orain arteko jaiotzari begira pasatuko dituzte tolosarrek. Denborak esango du, eztabaidagune birtualetako iritziek zer nolako pisua har dezaket.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

15. jardunaldia

Colo Colo Confort–**Lauburu** 5–1

Sailkapena

1. Colo Colo	36p
2. Tafatrans	31p
3. Cons. Jose Luis Cobo	31p
4. San Juan	30p
5. Zierbena	28p
6. Lauburu Ibarra	27p
16. Asc. Dep. Nalda	5p

Hurrengo jardunaldia

Sala Quinto (7.)– **Lauburu (6.)**

HIRUGARREN MAILA

13. jardunaldia

San Jorge Santurtzi–**Laskorain** 2–10

Sailkapena

1. Alipendi	34p
2. Laskorain Ikastola	28p
3– Goierri	26p
4– Afantxo	24p

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (2.)–Otxartabe (5.)

Eskubaloia

1. NAZIONAL MAILA, C MULTZOA

14. jardunaldia

Tolosa CF–BM Barakaldo 38–31

Sailkapena

1. Zaragoza	25p
2. Anaitasuna	24p
3. Ereintza	22p
4. Tolosa CF	21p

Hurrengo jardunaldia

Alcorta (13.)–**Tolosa CF (4.)**

Futbola

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

15. jardunaldia

Añorga–**Tolosa CF** 2–3

Sailkapena

1. Ordizia	33p
2. Bergara	32p
3. Hernani	30p
4. Pasaia	28p
5. Tolosa CF	27p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (5.)–Urola (17.)

EUSKAL LIGA

(Asteburu honetan ez da partidarik jokatu)

Sailkapena

1. Tolosa CF	40p
2. Arratia	39p
3. Bizkerre	38p
16. Lakua	5p

Hurrengo jardunaldia

Goierri–Gorri (7.)–**Tolosa CF (1.)**

ERREGIONAL PREFERENTEA, LEHEN MULTZOA

14. jardunaldia

Hernani–**Billabona** 0–1

Sailkapena

1. Deusto	31p
2. Allerru	29p
3. Euskalduna	27p
5. Billabona	25p

Hurrengo jardunaldia

Billabona (5.)–S. Tomas Lizeoa (6.)

BIGARREN MULTZOA

13. jardunaldia

Tolosa CF–Eibar Urko 3–3

Sailkapena

1. Aloña Mendi	33p
2. Tolosa CF	26p
3. Eibar Urko	24p
4. Soraluze	22p

Hurrengo jardunaldia

Idiazabal (14.)–**Tolosa CF (2.)**

Pilota

BINAKAKO TXAPELKETA

4. jardunaldia

Ezkurdia–Zabaleta 15

Altuna III–Martija 22

Final–laurdenak, ligaxka

1. Altuna III –Martija	3–1
2. Olaizola II–Imaz	3–1
3. Victor–Albisu	2–2
4. Elezkano II–Rezusta	2–2
5. Urrutikoetxea–Galarza	2–2
6. Ezkurdia–Zabaleta	2–2
7. Bengoetxea VI–Larunbe	1–3
8. Irribarria–Merino II	1–3

Hurrengo jardunaldia

Abenduak 23, larunbata, Iruñea

Victor–Albisu

Altuna III–Martija

Saskibaloia

LEHEN MAILA

10. jardunaldia

RedLine Mekanika TAKE 70

Arri BKL 64

Sailkapena

1. San Cernin	8–2
2. Hernani	8–2
3. RedLine Mekanika TAKE	7–3
4. Getxo	6–4
5. Universidad Deusto Loiola	6–4
6. Atletico San Sebastian	6–4

Hurrengo jardunaldia

San Cernin (1.)–**RedLine TAKE (3.)**

Aimar Irigoien, jaun eta jabe Asteasun

Erraz nagusitu zaie errezildarra gainerako harri-jasotzaileei eta txapela eraman du 8.225 kilo jaso eta gero

Josu Artutxa Asteasu

Jende asko espero zen Asteasu-ko frontoian, eta herri kirol zale-ek ez zuten huts egin. Gainera, saio ederra eta bizia ikusteko aukera izan zuten larunbatean bertaratu ziren guztiek. Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa zegoen jokoan. Azken urteetan bezala, momentuko kirolaririk onenak ikusteko aukera izan zen. Guztira, sei izan ziren harriak jasotzen aritu zirenak: Aimar Galarraga, Aimar Irigoien, Imanol Illarramendi, Jokin Eizmendi, Jon Unanue *Goenatxo* III.a eta Xabier Aranburu *Guzta*. Baja bat ere izan zen tartean. Izan ere, Iban Ugartemendia hernialdetarra, besoko arazoak medio, ez zen Asteasun izan.



Aimar Irigoien, esfortzu betean, larunbatean Asteasun. JOSU ARTUTXA

Aimar Irigoien zen faborito nagusia, eta iazko txapeldunak, emaitza errepikatzea lortu zuen, beste behin. Guztira, 8.225 kilo jasotzea lortu du Irigoienek. Eizmendi izan zen bigarren, 7.125 kiloko azken emaitzarekin. Hauen atzetik, Xabier Aranburu *Guzta* sailkatu zen, 5.100 kilorekin.

Podiumetik kanpo geratu ziren, hurrenez hurren, Unanue

(5.075 kg), Galarraga (5.025 kg) eta Illarramendi (4.850 kg). Azken honek ez zuen hasierarik onena izan, 200 kiloko harriari 4 altxaldi eman zizkiolako. Gai-nontzekoek 5 edo gehiago eman zizkieten, eta hortxe geratu zen atzean. Lehen biek behetik gorako saioa egin zuten. Harriek geroz eta pisu gutxiago izan, orduan eta indar gehiago erakutsi zuten.

Tolosaldea IKT-k hiru mailatan irabazi du

Gipuzkoako Taldekako Kopan emakumezkoetan, gizonezkoetan eta mistoan gailendu dira

I. Garcia Landa Tolosa

Hamabi talde lehiatu dira aste-buruan Usabal kiroldegiko igerilekuan, Gipuzkoako Taldekako Kopa jokoan zela. Hiru sailkape-nak eskuratu dituzte Tolosaldea IKT-ko igerilariek: emakumezkoetan, gizonezkoetan eta mistoan. «Oso pozik gaude emaitzarekin», azaldu du Nerea Pagola Tolosaldea IKT-ko kideak. «Bidasoa taldekoak nolabait esateko B taldearekin etorri dira, Espainiako Kopan ere parte hartzen ari baitziren, eta horrek ere ahalbidetu du emaitza hauek lortzea».

Gizonezkoetan espero zuten



Gipuzkoako Taldekako Koparen une bat, larunbatean. JOSU ARTUTXA

irabazi ahal izatea, baina emakumezkoetan ez zegoen hain argi lehen postua eskuratzea. Absolutu mailan jokatu da lehiaketa, eta proba bakoitzean gehienez taldeko bi igerilarik parte hartu ahal izan zuten. Proba bakoitzean puntuak eskuratzen zituzten taldearentzat eta bukaeran de-

nen batuketa egin da. Emakumezkoetan Tolosaldearen ondoren Izarraitz eta Fortuna taldeak sailkatu ziren. Gizonezkoetan, Tolosaldearen ondoren Bidasoa eta Fortuna izan ziren bigarren eta hirugarren, eta lehiaketa mistoan gizonezkoen sailkapen bera izan zen.



ASTEARTEA, 2017KO ABENDUAK 19
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalde: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ZORION AGURRAK



Zorionak Ana Belen

Denon artean lortzen ari gara. Presu eta iheslariak etxera.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm

ASTEARTEA 19

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Emakume raketisten inguruko dokumentala, 18:30ean, Mike-lasagasti auditoriumean.

Tolosa. Irakurketa Klubean, Edmund De Waal idazlearen *La liebre con ojos de Ambar* liburua jorratuko da 18:30ean, liburutegian.

Tolosa. Beldur Barik jaialdiaren barruan *Hi haiz, hil* ekitaldia egingo da, Topic zentroan.

Zizurkil. Ipun Astearren barruan, 17:30ean, Mozoloaren bideaipuin kontaketa saioa Dobera elkartearekin, Plazida Otaño liburutegian.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Mikel Ozaita *Kale Kantotik*, Jon Ander Gallarragaren eskutik *Ekokultura*, Mikel Landa Bartzelonatik eta Ander Lorente teknologiaz.

11:00-12:00. Hamaiketako. Villa-

bona-Aiztondo eta Anoetaldeko albisteak Jon Mirandaren eskutik.

12:00-13:00. Entzuteko Jaioak.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Eguneko saioen onena.

20:00. Kokondo. Oskar Tenarekin.

28 KANALA

12:30. Ur eta lur.

13:30 / 17:30 / 21:30. Gaurkoan Tolosalde.

22:00. Adi! Iskanbila. Lekord.

22:30. Ikustenda. Kirola bizi.

23:30. Gaurkoan Tolosalde.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. Tf: 943 67 60 13.

Gauekoa. Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Tf: 943 67 38 49.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



SARTU GURE ON LINE DENDAN ETA...

GOZOGILE BATEN

GRINA EZAGUTU EZAZU

rafa.gorrotxategi.eus

Denda: Solana 1, Tolosa
Lantegia: Pol. Usabal, 14, Tolosa
943 89 03 06



Tolosako Babarruna

GOZA ITZAZU

www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53